



PRENTSA OHARRA: 2023.07.13

## **Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XIII ikastaroak euskara eta euskal kultura nazioartean irakasteko giltzarriak eskainiko ditu**

- **Ikastaroa** uztailaren 18an eta 19an egingo da Donostiako Miramar Jauregian, EHUko Udako Ikastaroen baitan
- **Aurtengo edizioan, ohiko hitzaldiez gain, lantegiak egingo dira euskara eta euskal kultura irakasten dutenen eguneroko jardunerako tresnak eskaintzeko helburuarekin**

Etxepare Euskal Institutuak EHU/ UPV-ko Udako Ikastaroekin batera urtero antolatzen du 'Bikaintasuna Euskal Ikasketetan' ikastaroa, nazioarteko testuinguruetan euskararen irakaskuntzan aritzen diren pertsonen formakuntza sustatzeko helburuz. Aurtengo edizioa, uztailaren 19an eta 20an egingo da Donostiako Miramar Jauregian, **'Euskal kultura nazioartean eta eremu eleanitzetan irakasteko lantegia'** izenpenean.

Gaur egungo irakurleei – Euskal Herritik kanpo unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasten duten irakasleak – eta etorkizuneko bereziki bideratutako formakuntza honek euskararen eta euskal kulturaren hainbat jakintza arloko adituak eta nazioarteko eremuetan aritutako irakurleak bilduko ditu. Era berean, aukera bat da irakurle izatea pentsatzen duen edonorentzat, Etxepare Euskal Institutuak urtero postu horiek betetzeko deialdiak egiten baititu.

Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza sustatzen du nazioarteko hainbat unibertsitatetan, euskal ikasketei zabalkundea, sakontasuna eta prestigioa emateko helburuz. Gaur egun, Euskal Herritik kanpoko **34 unibertsitatek**



osatzen dute Institutuak sustatzen duen sare hori, eta 28 dira sare horretan diharduten irakurleak. Ehundura hau indartzeko, ezinbestekoa da irakurleek eta irakurlegaiak trebakuntza egokia jasotzea.

Ikastaroko 13. edizio honen berrikuntza nagusia da ohiko hitzaldietara lantegiak ere gehitu zaizkiela, formakuntza teoriko- praktikoa eskaintzeko helburuz. Udako ikastaroak euskarak, literaturak eta euskal kulturak nazioarteko panorama akademikoan duten lekua ezagutzeko aukera eskainiko du.

Euskal kultura hainbat diziplinatan nola irakatsi eta transmititu landuko da bi egunetan: **euskal kultura , euskararen didaktika, literatura, zinema eta euskal kulturaren ingurumen humanitateen ikuspuntua**. Euskal Ikasketen didaktika hainbat ikuspegitatik aztertu eta **metodologiak, tresnak eta baliabideak** eskainiko dira, benetako kasuetan sakonduz.

Formakuntza hau, bai atzerrian eta bai Euskal Herrian, batez ere migratzaileak gizarteratzeko esparruetan edota nazioarteko programetako unibertsitate-ikasleei zuzendutako eremuetan, euskara, euskal literatura eta euskal kulturari buruz hausnartu nahi duten graduatu, profesional, irakasle edo humanitateetan (filologia, artea, ikasketa globalak, ikasketa kulturalak, etab. ) interesa duen edonoretzat dago pentsatuta.

Lantegietan euskara edota euskal kultura irakastearen errealitate jakin batzuetara egokitutako proposamen berriak garatuko dira. Lantaldeak landuko diren gaien arabera osatuko dira, eta lantegiak goizaren amaieran eta arratsaldean egingo dira.

Hitzaldietan soilik edo hitzaldietan eta lantegietan parte hartzeko aukera dago. **Matrikulazio epea zabalik** dago oraindik (59€-tik aurrera), [uik.eus](http://uik.eus) webgunean.



## Programa

### Uztailak 19

09:00 - 09:15- **Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena**

- Garbiñe Iztueta Goizueta | Euskal Herriko Unibertsitatea – Irakaslea
- Monika Madinabeitia Medrano | Etxepare Euskal Institutua - Euskara sustatzeko eta hedatzeko zuzendaria

09:15 - 09:30- **Giroitze dinamika eta taldekatzea**

09:30 - 10:00 - **“Maletan zer eraman atzerrian euskal kultura irakasteko“**

Xabier Paya Ruiz | Sortzailea, kultur kudeatzailea eta irakurle ohia

10:15 - 10:45 - **“Euskal literatura testuinguru globalean: Boise State Unibertsitatearen kasua“**

Ziortza Gandarias Beldarrain | Boise State University / Etxepare Euskal Institutua – Irakaslea

11:00 - 11:30 - **“Euskal gramatika metodo kognitiboan oinarrituta irakasteko adibideak“**

Maddalen Subijana Puelles | Freie Universität Berlin / Etxepare Euskal Institutua – Irakurlea

11:30 - 12:00 - **Atsedena**

12:00 - 12:10 - **Taldekatzea**

12:10 - 13:30 - **Lantegia. Talde txikitako lana**



13:30 - 13:35- **Itxiera**

15:30 - 17:30- **Lantegia. Talde txikitako lana**

17:30 - 18:00 - **Lantegia. Talde handian partekatzea**

Uztailak 20

09:30 - 10:00 - **“Natura eta kultura Euskal Herrian: ingurumen-humanitateen ikuspuntua“**

Maitane Ostolaza Esnal | Université de Perpignan - Irakaslea

10:15 - 10:45 - **“Euskal zinema atzerrian kitzikagarri egiteko gida laburra“**

Harkaitz Cano Jauregi | Idazlea

Unai Zaballa Clares | UNAM / Etxepare Euskal Institutua - Irakurlea

11:00 - 11:30 - **Atsedena**

11:30 - 13:30 - **Lantegia. Talde txikitako lana.**

15:30 - 17:00 - **Lantegia. Talde txikitako lana.**

17:00 - 18:00 - **Lantegia. Talde handirako ekarpenak.**

18:00 - 18:15 - **Sintesia**



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA

## Info+

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)